

BILBOKO MERKATARITZAN ZUZENEAN KONTSUMITZEA SUSTATZEKO BONUEN PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK, BILBOKO UDALAREN BILBAO AURRERA 2021 PLANAREN BARRUAN

1. ZIOEN AZALPENA

Bilbao Ekintza EPEL erakundea (aurrerantzean Bilbao Ekintza) Bilborako ekonomia- eta gizarte-jardueraren sorrera sustatzen duen udal-erakundea da; horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa, eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetzen dituela. Helburuen artean ditu, besteak beste, hiria kulturarako eta aisialdirako leku gisa kokatzea eta sustatzea nazioarteko turismoaren alorrean, eta, horrela, hiribildu dinamizatu bat lortzen eta bertan aberastasuna pilatzen laguntzen du.

COVID-19ak beste errealitate bat ekarri zigun 2020ko ekitaldian, aurrekoaren oso bestelakoa, eta horrek jarduera ekonomikoa etetea ekarri zuen. Premiaz, osasun-, ekonomia- eta gizarte-krisi horren ondorioei aurre egiteko jarduketa koordinatu bat behar izan genuen. Bilboko Udalak, egoera hori ikusita, BILBAO AURRERA Plana onetsi zuen 2020ko maiatzaren 8an, hau da, Bilboko Gizarte Kohesiorako eta Ekonomia, Enplegua eta Kultura Suspertzeko Plana. Guztira, 15 milioi euroko aurrekontua du. Pandemia-egoeran jarraitzen dugu eta gero eta larriagoak dira tokiko gizarte- eta ekonomia-ehunean eragin dituen ondorio negatiboak; hori dela eta, beste plan bat prestatu da, AURRERA PLANA 2021 izenekoa eta urtarrilaren 29an udal-talde guztiek aho batez onetsi zutena.

Ekonomiarekin eta enpleguarekin zerikusia duten neurrien artean, Bilbon zuzenean kontsumitzea sustatzeko programa bat gehitu da BILBAO AURRERA Planean, eta, horretarako, BILBOKO BONUAK erabiliko dira kalte gehien izan duten sektoreetan.

Azaldutakoa aintzat hartuta, Bilbao Ekintza EPELren Administrazio Kontseiluak, 2021eko martxoaren 29ko bileran, erosketa-bonuen sistema arautzen duen MERKATARITZAKO BILBOKO BONUAK programa hau onetsi du, udalerriko merkataritza-jarduera bultzatzen laguntzeko asmoz.

2. PROGRAMAREN XEDEA ETA HELBURUAK

Programaren bitartez, BILBOKO BONUAK bonuen sistema arautu nahi da, Bilboko establezimenduetan kontsumitzea bultzatzeko asmoz, eta, horri esker, udalerriko merkataritza-jarduera suspertzen lagunduko da.

Hori horrela, Bilbao Ekintzak, programaren bitartez, hirian zuzenean kontsumitzea sustatu nahi du pandemiak gehien kaltetu duen sektore batean ekonomia eta enplegua berraktibatzen laguntzeko eta Bilbo hiri bizi eta dinamikoa izan dadin bermatzeko.

3.- ONURADUNAK

Bilbao Ekintzaren bitartez Bilboko Udalak salgai jarriko dituen bonuak eskuratzen dituzten 18 urtetik gorako pertsona fisiko oro izango da onuradun. Ezarritako bide eta bitartekoen bitartez eskuratu ahal izango dituzte.

NAN edo AIZ zenbaki bati lotuta egingo da bonuen banaketa; hortaz, zenbaki bakoitzeko, guztira, 5 bonu eskuratu ahal izango dira.

Bonuak eskuratzen dituztenek hurrengo atalean adierazitako zenbatekoa ordainduko dute, eta Bilbao Ekintzak dirulaguntza ordainduko du. Dirulaguntza hori ez da geroago itzuli beharko.

Herritarrek ordaindutako zenbateko osoaren eta Bilbao Ekintzak egindako ekarpenaren batuketak osatuko du bonuaren ageriko balioa (balio osoa).

4.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK ETA BONU-MOTAK

Bilbon zuzenean kontsumitzea sustatzeko BILBOKO BONUAK programan bonu bakarra erabiliko da, aurrerago zehaztu den zenbatekoa izango duena.

Oinarri hauetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira aplikatzen zaizkien hobariak, honako hauen arabera:

BONU-MOTAK	BONUAREN PREZIOA	UDALAREN EKARPENA	BONUAREN BALIO OSOA (AGERIKOA)
1. MOTA	15,00 euro	15,00 euro	30,00 euro

5. FINANTZAKETA

Bonuak finantzatzeko gehieneko kreditua 961.725,00 euro da, eta honela banatuko dira:

Bonuetarako ezarritako zenbatekoa modu proportzionalen banatuko da Bilboko barruti guztien artean, bonuak saltzen hasi aurretik barruti bakoitzean bat egin duten establezimenduen kopurua kontuan hartuta.

Hala ere, programak iraun bitartean, Bilbao Ekintzak proportzio hori luzatu ahal izango du, baldin eta behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak badaude eta hala egitea komeni bada.

6. PROGRAMAREN INDARRALDIA

Onuradunek programaren hasiera-hasieratik eta 2021eko ekainaren 30era arte edo agortu arte erosi ahal izango dituzte bonuak. Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bitartez aldatu ahal izango da amaiera-data, eta horren berri emango da egiten den hurrengo Administrazio Kontseiluan.

Herritarrek eros ditzaten, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz hartzen dituen prebentzio-neurri espezifikoaren mende egongo da bonuak eskuragarri jartzea, bai eta programaren garapen egokia baldintza dezaketen edo programaren bidez lortu nahi diren helburuak hobeto lortzen lagun dezaketen beste edozein zirkunstantziaren mende ere.

Bestalde, gastua 2021eko ekainaren 30ean egin beharko da gehienez, eta ez dira diruz lagunduko egun horretatik aurrera egindako erosketak. Datari dagokionez, dagokion tiketean/fakturan jasotakoa beteko da, eta ez da onartuko ondorengo fakturarik.

Hala ere, Bilbao Ekintzak programaren indarraldia luzatu ahal izango du, Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bitartez, baldin eta behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak badaude eta hala egitea komeni bada.

7. ESTABLEZIMENDUAK ATXIKITZEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK:

Atxikitako entitateak

Kanpaina honi atxikitako entitatetzat hartu ahal izango da merkataritza-sektorearen barruan enpresa-jarduera duen pertsona fisiko edo juridiko oro, baldin eta Bilbon establezimendu ireki bat badu eta agiri honen I. eranskinean zerrendatutako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigraferen batean alta emanda badago.

Salbuespen gisa, aipatutako eranskinean adierazitako beste talde edo epigrafe batzuetan dauden enpresek parte hartu ahal izango dute, baldin eta Bilbao Ekintzak uste badu horien ezaugarriak eta jarduera bat datozela programa honen izaerarekin eta helburuekin.

Programa honi atxikitako erakundeak erakunde laguntzailetzat hartuko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera, eta arau horretan

dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzat aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaie.

Kanpainan parte hartzeko prozedura

Kanpainan parte hartzeko, erakundeak edo establezimenduak atxikitzea eskatu beharko du. Eskabideak, inprimaki elektronikoaren ereduaren arabera, Bilbao Ekintza webguneak horretarako garatutako plataforma teknologiko honen bidez aurkeztu beharko dira: www.bonobilbao.eus.

Atxikitzeko eskaerarekin batera, deialdi honen II. eranskinean zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Eskabide-orriak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat badu edo osagabeak badira, erakunde interesdunei bost egun balioduneko epea emango zaie antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotakoan akatsik egin ez badute, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoen arabera emango den ebazpenaren ondoren.

Eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu ondoren, bonuen kanpainan atxikitako erakunde gisa onartu edo baztertu dela jakinaraziko da, emandako posta elektronikoaren bidez.

Baimena eman duten beste kanpaina instituzional batzuetara atxikitako erakunde edo establezimenduak programa honetan sartuta daudela ulertuko da, baldin eta programa honek ezarritako baldintzak onartzen badituzte eta deialdi honetan eskatutako dokumentazioa aurkezten badute; beraz, ez dute eskabidea aurkeztu beharrik izango, atal honetan adierazitako baldintzetan, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. 1. d) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Kanpainan parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea

Establezimenduek eta enpresek bat egiteko hasiera-epea Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bitartez zehaztuko da, eta entitatearen webgunean argitaratuko da. Atxikitzeko eskabideak aurkezteko epea irekita egongo da programak irauten duen bitartean.

8. BONUEN EZAUGARRIAK ETA ERABILERA-BALDINTZAK

Bonuak erostea:

Bonuak digitalki eskuratu ahal izango dira Bilbao Ekintzak gaitutako web plataformaren bidez. Plataforma horretara www.bonobilbao.eus estekaren bitartez sartu ahal izango da. Horrez gain, Kutxabanken sarrerak saltzeko eta jasotzeko terminaletan eskuratu ahal izango dira (<https://portal.kutxabank.es/cs/Satellite/kb/eu/negozioak/bulegoak-eta-kutzazainak>).

Erosten diren unean ordaindu beharko dira bonuak, eta erosteko ordainketa-sistema kreditu- edo zordunketa-txartelaren edo aipatutako erakundearen ordainketa-pasabidean onartutako beste edozein ordainketa-bide elektronikoren bidez egingo da.

Salbuespen gisa, 65 urtetik gorako pertsonak atxikitako establezimenduetan eskuratu ahal izango dituzte bonuak, aldez aurretik NANA erakutsiz. Bonu horiek kreditu- edo zordunketa-txartelarekin edo eskudirutan ordaindu ahal izango dira.

Programa indarrean dagoen bitartean erosi ahal izango dira bonuak, baldin eta finantzatzeko kreditu nahikoa badago.

Bonuen trukea

Kanpainari atxikitako entitateen establezimenduetan trukatu dira bonuak. Eguneratutako zerrenda webgunean argitaratuko da: www.bonobilbao.eus

Erosi diren barrutiari atxikitako establezimenduetan soilik trukatu ahal izango dira.

Erabiltzaileak bonuaren QR kodea aurkeztu beharko du edo, bestela, erosketa egingo duen establezimenduan inprimatutako bonuak aurkeztu.

Erosketa-tiketaren zenbatekoa bonuarena berdina edo handiagoa izan behar da, erosketa edo kontsumizio bakoitzean oso-osorik agortzeko modukoa.

Edonola ere, ezin izango da dirua eskudirutan itzuli, ez erosterakoan, ez eta beranduago produktua itzultzea erabakitzen bada ere.

Erosketa-tiket bakoitzeko, gehienez ere, BILBOKO BONUen lau ale erabili ahal izango dira.

BILBOKO BONUAK beste administrazio batzuek eskaintzen dituzten beste bonu batzuekin izango dira bateragarriak; beraz, tiket bakarreko erosketan pilatu ahal izango dira.

Nolanahi ere, ematen den dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza eta gainerako diru-sarrerekin batera, ezin izango du diruz lagundutako erosketaren balioa

Muga

Establezimenduei dagokienez, bonu-mota bakoitzeko muga 150 unitatekoa da. Muga hori handitu ahal izango da, baldin eta eskariaren egoerak hala gomendatzen badu, ahalik eta bonu gehien banatu ahal izateko.

Nola egin bonuen likidazioa Udalarekin.

Likidatzeko orduan, atxikitako entitateak plataformaren bitartez erregistratu beharko dituzte bonuak eta dagokien salmentaren tiketa edo faktura.

Udalak, Bilbao Ekintzaren bitartez eta astero, une horretara arte aurkeztutako bonuei dagokien zenbatekoari itzuliko die establezimenduari. Horretarako, banku-transferentzia bat egingo du emandako kontu zenbakira.

Bilbao Ekintzak, laginketa-tekniken bidez, bonuen aplikazio egokiari buruzko arazoizko ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten frogagiriak egiaztatuko ditu. Horretarako, aipatutako frogagiriak bidaltzeko eskatuko dio atxikitako erakundeari.

9. PROGRAMA OSATZEN DUTEN ALDERDIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Onuradunen eskubideak eta betebeharrak

Konsumitzaile batek bonuak erosteak dokumentu honetan jasotzen diren kanpainako baldintzak onartzea dakar.

Onuradunek erosten dutenean ordainduko dute bonuaren zenbatekoa, eta atxikitako enpresetan eta establezimenduetan trukatu ahal izango dituzte adierazitako muga-eguna baino lehen.

Atxikitako establezimenduen eskubideak eta betebeharrak.

Establezimendu batek bonuen kanpainarekin bat egiten badu, oinarriak onartu dituela joko da, bai eta oinarrietan ezarritako konpromisoak bere gain hartzen dituela ere. Hori dela eta, Bilbao Ekintzak egiten dituen egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduketak onartuko ditu, eta horiek egin ahal izateko eskatzen zaion informazio guztia aurkeztuko du.

Atxikitako pertsonak kontsumitzaileei programaren ezaugarrien berri emateko konpromisoa hartuko dute, bai eta programa iragartzeko materialak hartzeko eta establezimenduan, ondo ikusteko moduko leku batean, jartzeko konpromisoa ere. Hori guztia deialdi honetan adierazitako bonuen mugara iristen direnean kendu beharko dute establezimenduek.

Establezimenduak bonua onartuko du tiketa ordaintzeko ordezeko gisa, erosketa osorik edo zati batean ordaintzeko, eta une oro errespetatu beharko ditu bezeroari tratatzeko berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioak. Hori horrela, programa indarrean dagoen bitartean, ezin izango da bonuaren programa ezkutatu edo bonua erabiltzeko eskubidea ukatu.

Atxikitako entitateek bonuen egiazkotasuna eta baliagarritasuna egiaztatzeko konpromisoa hartuko dute, eta haiek izango dira Bilbao Ekintzaren aurrean bonua baliogarria izateko beharrezkoak diren zenbatekoen erosketa-tiketa edo -faktura egiaztatzeko eta justifikatzeko arduradunak.

Kontsumitzaileei ez zaie inola ere eskudirutan itzuliko erosketaren zenbatekoaren eta BILBAO BONUAREN balioaren arteko aldea, ez erosteko unean, ez erositakoa geroago itzultzen bada.

Kontsumitzaileak bonua erabili ondoren, entitatea baino ez da izango bonua ondo kudeatzearen arduraduna, eta salmentaren tiket edo faktura egokiarekin batera aurkeztu beharko du plataforma elektronikoaren bitartez, Udalean behar bezala likida dadin.

10.- INTERPRETAZIOA

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdia funtsean aldatzen ez duen punturen bat garatu, aldatu, egokitu edo ezabatu behar bada, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzari emango zaio aldaketa horiek egiteko eskumena. Ondoren, horren berri emango dio Administrazio Kontseiluari, aldaketak egin eta deitzen den lehenengo bileran.

11. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA:

Oinarri hauetan xedatutakoaz gain, honako hauetan xedatutakoa bete beharko da:

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako dirulaguntzei buruzkoa.
- Gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen I. Titulua.
- Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.